

Axularren testu-zorrak¹

PATXI SALABERRI MUÑOIA*

Aurreko artikulu batean adierazi bezala², bada Axularren liburuan euskal Aremuko idazleei zor dien hainbat pasarte, batzuk haien obretatik zuzenean jasoak eta beste batzuk, aldiz, autore haien pasartetan oinarrituz idatzitak izan zirenak.

Jakina, ez zen ugariagia Axularren aurretik euskaraz idatzitako literatura, eta are eskasagoa Axularrek aszetika liburu batean erabil zezakeen erlijiosoak. Izan ere, begirada labur batek berehala erakusten du zer zegoen ordura arte argitaratuta esparru horretan: Materrerena (*Dotrina Christianaren* bi argitalpen), Etxeberri Ziburukoaren lan bi, Argaignaratzena (egun ezagutzen ez dena) eta, nola ez, Leizarragaren *Testamentu Berria* (1571).

Dakigularik, Gero-n barrena aurkitu menpekotasun edo zor moduko horiek bi autorerekiko dira behinik behin: Leizarraga eta Materreraren obretatik jasoak hain zuzen³.

Testu zorrik harrigarriena, dena den, ez da Materrerena, Axular haren liburuaren hasieran examinatzaile gisa agertzean irakurle eta aztertzaile zorrotz bezala azaltzen baita. Arraragoa da inondik ere Leizarragarena kontrarreformistaren obran errainu distiratsuz tartekatua antzematea.

Printzipioz espero ez den arlo horretako zorra bada ere, badu bere logika.

Axularrek bere liburuak idaztean, eta planteamendu katoliko-kontrarreformisten barruan kokatzen dela ahaztu gabe (hots, protestantismoak sortutako krisialdiari luzatutako erantzunaren barnean), premia zenbait izan zituen: hizkuntza kodetzearena (berak aitatu), erreferentzia erlijiosoena (euskal liburuetatik bainoago, erdarazkoetatik jaso), etab. Premia horien artean, nekez egin ziezaiokeen uko euskaraz idatziriko *Testamentu Berri* bakarrari,

* Euskal Herriko Unibersitatea, UPV.

¹ Lan honek ez zukeen argia ikusiko Blanka Urgellek hainbat iradokizun eskergaitz egin izan ez balit.

² Ik. "Testu-menpekotasuna Axularren obran" (*FLV* 80, 1999, 33-57).

³ Artikulu honetan erabiliko diren obrak laburdurak eta bibliografi erreferentziak honako hauek dira: Axular (Ax): *Guero, bi partetan partitua eta berecia* [...], Bordele, G. Millanges, 1643 (faksimila: Bilbo, Euskaltzaindia, 1988); Ioannes Leizarraga (Lç): *Iesus Christ gure Iaunaren Testamentu Berria. Otboitza ecclesiasticoen forma. Catechisme. Kalendrea. ABC edo Christinoen instructionea*, Bilbo, Euskaltzaindia, 1990; E. Materre (M): *Dotrina Christiana, bigarren impressionean* [...], Bordele, J. Millanges, 1623.

berak liburuan etengabe egin behar zituen aipu asko eta asko (ehundik gora) handik atera baitzitzakeen zuzenean emanik edota zertxobait aldatuz. Jakina, horrek lana erraztu eta itzulpen-moldaketak egitetik libratzen zuen, *Testamentu Zahar*reko testuen kasuan ez bezala. Pentsatzekoa da, halaber, lehendik (hots, liburuari ekin aurretik) erabiltzen zituela Axularrek Leizarragaren testuak, ohiko predikazioetarako hain zuzen.

Ezin jakin noiz hasi zen urdazubiarra kalbinistarena erabiltzen; edonola ere, beste sermoilarien jokamoldea eraman bazuen (eta ez da bestelakorik pentsatzeko arrazoirik), ezaguna da predikariek gero sermoietan erabili asmo zuten materiala (aipuak, erreferentziak, adibideak, irudiak, gai-garapenak...) karpeta moduko batzuetan bilduta izaten zutela.

Ez litzateke harritzekoa, bada, Axular ere modu horretako bildumagile gisa aurkitzea. Horrela, besteren pasarte, aipamen eta testuak “bere-beretuak” izan zitzakeen bertan, nahiz eta aipamen biblikoen alboan eta ospe handiko idazleen pasarteenean zegokien erreferentzia laburra erantsi ohi zitzairen. Praktikan, beraz, fitxa moduko orrialde haietan isuritako materiale askoren jatorria (bereak ote? norenak? nondik atreak?) zeharo ahaztuta izan zezakeen apaizak sermoiarri edota idazketa-lanei ekiterakoan. Ahaztuta edo, interesen arabera, nahita isilduta, jakina.

Nolanahi ere den, garbi uste dago Leizarragaren eta Materreren obrak aurrean izan zituela Axularrek “Gomendiozko karta” eta “Irakurtzaileari” luzatutako hitzaurrea egitean.

Obraren barnean, dena den, bakan eta lausoagoa da Materreren presentzia, hiru pasarte baino ez baita oraino identifikatu Axularrenean Materrerenarekin zerikusirik izan dezaketenak. Eta horietakoren bat, gainera, zalan-tzazkoa irudi lekiok bati baino gehiagori.

Ordea, nabarmenagoa da Leizarragaren *Testamentu Berritik* garraiatutakoa, Axularrek, esan bezala, aski era sistematikoan erabili baitzuen kalbinistaren obra.

Pasarte guztiak zehazkiro erkatzeak luze joko lukeenez gero, barka beki-gu esandakoaren erakusgarri bezala horietako batzuen iruzkin laburra bakarrik egiten badugu (irakurleak ondoko eranskinean aurki ditzake interesgarrienak)⁴.

Axularren obrak Leizarragarenarekin dituen kidetasunak inoiz kointzidentzia hutsaren edota itzulpen edo predikazio tradizioaren fruitu izan badaitezke ere, “antz” askok testu menpekotasun garbia uzten dute agerian. Are gehiago gogoan hartzen bada ez oso “tekne” berezia darabilela urdazubiarrak testu-iragapenean.

Ildo horretatik, autore bien testuen artean dauden aldeak maizkara hika-ko forma zutanoarekin estaltzetik datozenak baino ez dira. Hori uste da, esaterako, honako pasarteen kasua:

Lç: Nahi duc bada goacen eta bil deçagun hura? (Mt 13, 28)

Ax: Nahi duçu bada goacin, eta gaixto hura [...] vil deçagun? (Gero 120)

⁴ *Testamentu Berriko* erreferentzietarako *Elizen Arteko Biblian* (Bibli Elkarte Batuak/Elizen Arteko Biblia Elkarte - Euskal Heriko Elizbarrutiak, Madrid-Donostia, 1994) erabiltzen diren liburu-laburdurez baliatuko gara

Lç: Huná, guc vtzi citiagu gauça guciac, eta iarrei qui gaitzaizquic hiri: cer içanen da beraz gure? (Mt 19, 27)

Ax: Iauna guc utci ditugu, ditugun on guztiac [...] eta iarrai qui gatçaizquitçu, cer içanen da bada gutçaz, edo guretçat? (Gero 506)

Lç: Garait eçac vnguiaz gaizquia (Erm 12, 21)

Ax: Onguiaz gaizquia garaitu behar da (Gero 322)

Beste zenbait pasartetan antzak beste maila batekoak diren arren, bien arteko hurbiltasunak agerian uzten bide du Leizarragaren obraren erabilpena:

Lç: Triste beçala, baina bethi aleguera (2 Ko 6, 10)

Ax: Triste beçala, bai, baiña bethi aleguera (Gero 440)

Lç: Ceruetaco resumari bortcha eguiten çayo (Mt 11, 12)

Ax: Ceruco erresumari bortcha eguin behar çaica (Gero 476)

Lç: Bada ia aizcora-ere arborén errora eçarria da: beraz arbore fructu on eguiten eztuen gucia piccatzen da, eta sura egoizten (Lk 3, 8-9)

Ax: Ceren iaquin behar duçue ecen, haizcora, çuhaitzaren erroari, kheinatua dagocala, eta fruituric iasaiten eztuena, ebaqui içanen dela, eta sura egotcia (Gero 571)

Jakina, Axularren planteamendu erretoriko hanpatua, Leizarragaren tinko eta zehatza ez bezala, etengabe agertuko da testuan isuria, eta ebanjelio-epistoletako pasartetan ere bai:

Lç: Ecen ene uztarria aisit da, eta ene cargá arin (Mt 11, 30)

Ax: Ene uztarria leun, placent, eta aisit da, eta ene carga ere arin (Gero 498)

Lç: On çuqueen guiçon harc baldin sorthu içan ezbaliz (Mt 26, 24)

Ax: On çuqueyen sorthu ezpaliz, edo sorthu, eta berehala hurtu, hondatu, eta ezdeus bihurtu baliz (Gero 593)

Lç: Cer fructu cenduten bada orduan orain ahalque çareten gauça hetaric? (Erm 6, 21)

Ax: Cer fruitu, cer irabaci, içan cenduten orduan, orai aippatcera ere, ahalque, çareten beccatu hetan? (Gero 515)

Bitxikeria adierazgarrienen artean honako hau genuke: latinezko bertsioan plurala den forma bat (nolite) Leizarragak “etçaitzela”-ren bidez euskaratzten du, nonbait orduko aditz paradigmaren plurala adierazten zuelako oraindik. Axularren kasuan, aldiz, “etçaitzela”-ren beharra dauka pluraleko bigarren pertsona hori emateko. Alabaina, lehenengo forma gisa eta testuan mantenduko zuena, Leizarragarena zuen apuntatua, Axularrentzat “zu” garbia adierazten zuena. Jakina, biak erabiltzean, trebetasun erretorikoa erakustez gainera, Axularrek aberastu egiten du testua eta mezuaren indarra areagotu, irakurleari zuzen-zuzenik mintzatzen baitzaio lehendabizi⁵.

⁵ Pentsatzekoa da, halaber, aditz forma biek izango zutela oraindik pluraltasunaren ukitua, hainbat testuingurutan berdin erabiliko eta entzungo baitziren bi-biak, eta batez ere, kontutan hartzen bada garai hartakoa dela aditz paradigmaren egokitapena (ik. J. Alberdi, *Euskararen tratamenduak: erabilera*, Euskaltzaindia, Bilbo, 1996)

Lç: Eta etzaitzela hordi mahatsarnoz (Ef 5, 18)
Ax: Etçaitzela hordi, etçaitzela arnoz betha (Gero 408)

Inori oraindik zalantzarik geratuko balitzaio Axularrek Leizarragarenetik hartzen zuenentz, honako bertzio hauek erka litzake eta balora:

Lç: Bada dembora duguno, daguiegun vngui guciey (Ga 6, 10)
Ax: Dembora duguifio, daguigun ongui (Gero 619)

edo, ageriagoa nahi badu oraindik, ikus beza ondoko hau (Mt 8, 12), non akats larri bat tartekatzeaz gainera⁶, ez baita haren itzulpena egiten, eta bai Leizarragarena bezalakoa.

Honela dio *Gero*-k latinez:

Ibi erit fletus & stridor gentium (sic) (Gero 585)

Eta honela ematen du Axularrek euskaraz:

Han içanen dela nigar, eta hortz carrasc-hots

Leizarragak era honetan zuen emana 72 urte lehenago:

Han içanen da nigar eta hortz garrascots

ERANSKINA

GOMENDIOZKO KARTA

ENE IAUN
BERTRAND DE ECHAUS,
Tursko Arzipizpiku, Frantziako
lehenbiziko erremusinari:
Ordenako aitonen seme, eta
erregeren Konseillari famatuari.
(*Gero*, iii)

MONSEIGNEUR
Le Reverendissime CLAUDE
DE REUIL Evesque de Bayonne,
Conseiller du Roy en Ses Conseils
d'Etat & Privé, Ausmonier &
Perdicateur ordinaire de sa Majesté,
&c. (*Materre*, iii)

Eta zure prestutasunaz, ohoreaz, eta aitzineko eta ondoko, fama on famatuaz, nork zer erranen du? (*Gero*, 5)

Çure humanitateaz den becembatean (Lç, 249)

Eta çure zelo Iaincozcoaz den becembatean, harc du engendratu çu baithara gende prestuén bihotzetan halaco reverentia-bat... (Lç, 250)

Nor da euskal-herrian aldez edo moldez, zordun eta obligatu etzaitzunik? Behartu eta enplegatu etzai-

Çure humanitateaz den becembatean, ene manerá halaco bacen-ere, non ezpaitzuen irudiric-ere çure

⁶ Axularren akatsa ala liburua apailatu eta "zuzendu" zutenena?

tuenik? Eta baliatu etzaitzanik? Zure etxea, egon eta ibili zaren lekhu guztietan, bethiere izatu da, euskaldunen etxea, pausalekhua eta portua. Guztiek zuregana laster. Zuri bere arrenkurak, egitekoak, koaitak, eta ondikoak konta. Eta zuk guztiak arraiki eta alegeraki errezibi. Zuhurki konseilla, kida, goberna eta burutan athera. (*Gero*, 5)

Zu izan zara, eta izanen zara, euskaldunen ohorea, habea, iabea, sostengua eta kantabres fina, naturala eta egiazkoa.

Zu izan zara Echaus, mendi Pirinioetan, Alduideko hegaletan, bethiere zentinelan, eta begiraille bezala, iratzarririk, dagoen iauregi eta gaztelu handi, eder, noble hartako seme. Hango Bizkondeak eta seme guztiak izatu dira bethiere, egundaiñoz gero, erregez enplegatuak, estimatuak, fin eta leial frogatuak. Eta bai egiazko fedearen eta legearen defendatzaile, eta aitzina-tzaile buruzagiak ere. Nafarroa behereko parte hetan, bertze anhitz lekhan bezala, lege katolika saindua, iduriz flakatzera, kordokatzera eta erortzera zihoanean, badaki munduak nola zure aita Iauna, bere etxeaz, onez eta biziaz ere kontu guti eginik, ioan zen Donapalaiaora, non baitzen orduan Nafarroako Parlameta. Eta han [...] (*Gero*, 5-6).

Eta hanbat egin zuen, non bere herria eta inguruneak ere, hetan sartzera zihoan eritasunetik begiratu baitzituen (*Gero*, 7)

humanitatea secular enegana hel ahal leitela, guciagatic-ere anhitz aldeh hura valiatu içan çait, eta principalqui, çure maiestatearen placera hala içanic gage ordena lequida[n], çure Bearnoco herrian entretenitu iça[n] naicen becembatean: ecen halaz eman içan çait, ithoa beçala azpitic nenducaten gogo-arrenguretaric, eta orhoitzeac-ere buruco biloa latz eraciten drauta[n] captivitatezco suiectionetic ilkiteco occasione eta moien (Lç, 249-250)

Eta çure zelo Iaincozcoaz den becenbatean, harc du engendratu çu baithara gende prestuén bihotzetan halaco reverentia-bat, non are çure eçagutzea eztutenec-ere ecin asco mirets baiteçaquete çure verthutea, çuri çucen onez emaita[n] çaiçquičun laudoriocagatic ceren hain affectionatu eracusten çaren Iaincoaren templeco gauça gaizquituén dreçatzen, eta ceren harc, quasi deseguin eta arrasatu içanic, orain çure moienez reedificate[n] delaric, recrubatu baitarama bere leheneco edertassun Apostoluén demborán ohi çuena. Hunetatcotzat exemplutan frangoqui allega ahal deçaquet çure Bearnoco herria: hura behin berce erran ahal daitenic batre beçain Iaincoaren hitzaren recebitzera behatu gaitzeta-co eta rebeleracutsi içanic, guciagatic-ere, Iaincoa çure zeloaz, çuhurtziaz eta gogo-handitassunaz cerbitzatu içanic halacara mansotu eta ematu içan da, no[n] egungo egunean Bearno gucian Iaincoaren hitza paisiblequi eta edificacione handitan predicatzen baita, baieta disciplina ecclesiasticoa eguiazqui eta bide beçala observatzen (Lç, 250)

Baiña certaco sartcen naiz ni itsas hon-
dar gabe hunetan? Ecin athera naite-
queyen oihanean? Çure laudorioen
aippamenean? Berac dira bere buruz
asco gora mintço: berac dira bere bai-
than asco clar eta ozen. Utz ditçadan
beraz nic hec, hutsic eztaguidan. Eta
iragaiten naicela aiticina, derradan hu-
tsic eguin gabe [...] (*Gero*, 9).

Eta iragaiten naicela aiticina, derra-
dan hutsic eguin gabe. Cer ere
esquiribatuco baita euscaraz, hura
guztia, euscaldunen buruçagui
beçala, çuri dagotçula, çuri çor
çaitçula, eta arraçoinez orai ere, çuri
presentatu behar çaitçula. Eta guz-
tiz ere çure cerbitçari ttipi hunen
trabailu appur haur, guerotic gue-
rorra eguitecoen luçatceac, cenbat
calte daccarqueyen, çuc hain ongui
daquiçun pontu haur, nori egonen,
çaica, çuri ezpadagotçu? Nor quida-
tucu, norc ostatuco du, çuc ezpa-
deçaçu? (*Gero*, 9-10).

Çure geriçan doha: çure itçalaren
azpian venturatcen da. Errecibi eçaçu
bada, deffenda eçaçu, alde çaquitça,
eguiçu beguitarte (*Gero*, 10).

[...] eta nehoren guti veldurric,
Iendartera, bere beguitarte, ausart-
qui atheraco du (*Gero*, 10)

Zure zerbitzari ttipiena, eta obliga-
tuena (*Gero*, 11)

Baina cer? etzait niri eman çure lau-
dorioén aippatzez hain aitzina avan-
çatzea, hetango claretatea neure
minçatzeco insufficientiaz ilhun
ezteçadançat. Baina hunetan guel-
ditzen naicela-ere, sportçu dut ecen,
ahal liritequeen [...] (Lç, 250).

Baina hunetan guelditzen naicela-
ere, sportçu dut ecen, ahal lirite-
queen vorondateric çucenenez eta
hobenez-ere gaizqui minçatzeaz
berce officioric eguiten eztuten ba-
tzuetaric, ia erran içan denac-ere
defenda ahal neçaquela. Ecen ahal
datequea ene conditionezco bacho-
tassunic ezpa hunelaco berce gauçar-
ic batre, ni hain obra saindu baten,
bere zelo eta affectione sainduagatic
mundu gucietan hanbat laudorio
emaiten çayon Reguina bati dedi-
catzetic guibeleratzeco nuenic?..."
(Lç, 250-251).

Hunen gainean çure maiesteari
supplicamenduz nagoca, dena oneta-
cotz othoi recebitu nahi duçun, obra-
ren handitassunera eta dignitatera
behatzenago duçularic ecen ez
Translataçalearen imperfectionetara
eta chipitassunera (Lç, 253).
Eguieçu beguitarte, eta errecebi
itçaçu (Materre, xxvii)

[...] eta iendartera atheratceco
(Materre, xiii)

Bere cerbitzari gucizco chipiac eta
gucizco obedientac (Lç, 249)

IRAKURTZAILEARI

Eta halatan hartu dut gogo, lehen-
biziko parte hunen, lehenik bentu-
ratzeko, eta berri iakitera bezala ai-
tzinerat igortzeko. Hunek zer iragai-

hartu dut gogo liburutto hunen
eguiteco, eta iendartera atheratceco
(Materre, xiii)

ten den, zer begitarte izaiten duen, eta nor nola mintzo den, abisu eman diazadan. Gero abisu haren arauaz ethorkizunerat gobernatzeko: eta bigarren partearen kanporat atheratzeko, edo barrenean gelditze-ko eta estaltzeko (*Gero*, 16)

Badakit anhitzek miretsiko duela eta edirenen arrotz eta estraiño, ni lan huni lotzea[...] Baiña ene kontra dela dirudien arrazoin hunek beronek [...](*Gero*, 16)

Zeren anhitz izan baita orainokoan, eta baita orai ere, ni ez bezalakorik, ni baiño hunetako gaiagorik, eta anzatsuagorik, ezpaitute guztiaekin ere, orainokoan, hunelako materia-tan, hunela ausartziarik eta esku-dantziarik hartu [...] Baiña [...] (*Gero*, 16)

[...] ni esportzatzen eta aitzinatzen nau, hunek bihotz emaiten deraut, haur edireiten dut nik neure alde eta fabore, zeren[...](*Gero*, 16-17)

Badakit halaber ezin heda naitekeie-la euskarako minzatze molde guz-tietara. Zeren anhitz molde eta diferentki minzaten baitira euskal herrian (*Gero*, 17)

[...] nori berea iduritcen baitçaica hoberenic eta ederrenic: eta ene haur ez paita çurea beçala: ez othoi hargatic arbuya eta ez gaitz erran (*Gero*, 18-19)

Hunetçaz content ez paçara, eguiçu çuc ceure moldera, eta çure herrian usatcen eta seguitcen den beçala. Ceren ez naiz ni hargatic beccaiztu-

Miretsico duçue aguian nic (Euscal-herrico ez naizelatic) Euscaraz esquiribatceco ausartciaren hartcea. Baiña baldin considera ba-dadi edi-renen duçue eztela gauça hunetan ausartciatic, eta ez cer miretsiric (*Materre*, ix)

[...] nic baino hobequi berce batec eguin ukan luqueela [...] ikussiric ecen halacoequin comparatzera ez-deus baino ezdeusago nincela, eta neure buruari quasi gogo nahiaz eta probetchu eguiteco desiraz berce-ric eznacussolaric[...] Alabaina[...] (Lç, 251-252)

[...] sporçu harturic [...] bihotz eman ukan cerautana [...] (Lç, 253)

Gaineracoan badaquit Euscal-herrian añhitz molde minçatcen direla, eta nori bere herrico Euscar-a çaicala hoberenic eta ederrenic (*Materre*, xiii-xiv)

[...] eta nori bere herrico Euscar-a çaicala hoberenic eta ederrenic: Eta handic gogoa emaitan deraut ene esquiribatceco molde haur etçayela guztiei ongui idurituco [...] ez nai-zela gaitz erraiteco, eta ez arbuya-tceco (*Materre*, xiv-xv)

Eta Saraco Euscar-a hunetçaz content eztenac ezquiriba beça bertce Euscar-a hobeago batez eta hobequiago, ez naiz ni hargatic bekaiztuco, eta ez imbidios içanen (*Materre*, xv-xvi)

co, eta ez mutturturic gaitzez iarrico (*Gero*, 19)

Har eçaçu, liburutto hunen fruitua, barreneco mamia [...] Baiña intencione on batequin, ceurea, ceurc eguina baitcendu beçala (*Gero*, 20)

eta nitçaz ere othoitz eguiteaz, arren othoi, orhoit çaiteci (*Gero*, 20)

Guztiac dohaci borondate on batez eguinac: eguieçu beguitarte, eta errecebi itçaçu nic ceurerc [sic] bailira errecebi nitçan nahi cenduqueyen beçala (*Materre*, xxvii-xxviii)

Hala beraz errecebi eçaçue, eta çuen oracinoetan eguin naçaçue partale (*Materre*, xvi)

GERO

Zeren obra miseriordiazkoak, hargatik deitzen dira miseriordiazkoak, eta ez iustiziazkoak, zeren zenbait behar ordu herstutan, eta premiazkotan baizen, ezpaikara obligatu heken egitera (*Gero*, 242)

Usatu behar da iuramentuaz, purgaz bezala. Purga ezin bertzez, eri zarenean, premia duzunean hartzen duzu: eta orduan ere ahalik eta gutiena, eta berantena: eta baldin gabe, iragan albazindezi, ez luke hark bere parerik, are hura hobea-go. Hala egin behar da bada iuramentua ere, are hura hobea-go. Hala egin behar da bada iuramentua ere, ezin bertzez, premiaz (*Gero*, 255)

Gerla handia dute elkharren artean berthutèk, eta bizioek. Uguillutasunak gerla handia egiten dio humiltasunari; Abariziak, libertasunari. Haragiak kasti-tateari; inbidiak, karitateari; gulak, abs-ti-nenziari: kolerak, pazientziari; nagi-tasunak, dilijentziari. (*Gero*, 478)

Eta deitzen dira miseriordiazcoac eta ez iustiziazcoac, ceren cembait behar ordu premiazcoz bertcetan, deboci-nozcoac eta borondatezcoac baitira, eta ez obligaci-nozcoac edo bortchazcoac (*Materre*, 22-23)¹

Aditzen dut cina eguin behar dela ecin bertzez (midicina hartcen den beçala) ez premia gabe (*Materre*, 110)

1. Uguillutasunaren contra humiltasuna
2. Avariciaren contra, liberaltasuna
3. Haraguzco bekatuaren contra, casti-tatea...
4. Inbidiaren contra onheriztea
5. Gularen [...] contra Abstinencia[...]
6. Hasserretassunaren contra, Diligencia (*Materre*, 27-28)²

¹ B. Urgell, "Axular eta Larramendi", ASJU 1991, 913-914.

² Nabarmena da Materrearen liburuak duen akatsa, haserrearen aurkako bertutea (pazientzia) eta zazpigarren bekatuaren izena (nagitasuna) falta baitira.

AXULAR

Ebatsten çuenac, ezteçala ebats, baiña travailla bedi, manaiá bedi (...) (*Gero*, 042)

Baldin iaincoac nahi badu, baldin bici bagara eguinen dugu haur edo hura (*Gero*, 055-056)

Çaudete prestic eta iratçarriric. Ceren eztaquiçue eguna eta ez orena (*Gero*, 056)

[...] iarri cen bere buruarequin gogoetan, erraiten çuela [...] Cer eguinen dut? [...], erraiten dudala neure baithan. Orái atseguin har deçadan, ian deçadan, edan deçadan, ceren berdin eztut deusen escasic, eztut guerocoren perilic, badut ethorquiçunecotçat behar den complimendu guztia. (*Gero*, 075)

Ha erhoa, centçu gabea, cer mintçoaz? Cer gogoeta darabillac? Eguin dic hireac, gaur escatuco çaiçquic heure arimaren, gaur gorputcetic atheraric, eramanen deraue. Eta guero orduan, vilduric dadutçan on horiec norentçat içanen dira? (*Gero*, 076)

Harc iguzquiac beçala eguiten du, oney, eta gaixtoey, guztiey arguitcen deraue. (*Gero*, 101)

Iaincoac nahi du guztiaç salua ditecin (*Gero*, 101)

Ceuen beccatuan hillen çarete (*Gero*, 109)

[...] non gure buruco illeac ere, contactuac baitadutça (*Gero*, 111)

Iauna, çuc haci ona eta garbia erein cenduen ceure landan eta alhorrean [...] Nahi duçu bada goacin, eta

LEIZARRAGA

Ebaisten çuenac ezteçala guehiagoric ebats: baina aitzitic travailla bedi (Ef 04, 28)

Baldin Iaunac nahi badu, eta vici bagara, eguinen dugu haur edo hura (St 4, 15)

Veilla eçaçue bada: ecen eztaquiçue guiçonaren Semea ethorriren den eguna ez orena (Mt 25, 13)

Eta gogueta eguiten çuen bere bait-han, cioela, Çer eguinen dut? ecen eztut nora bil ditzadan neure fructuac. [...] Eta erranen draucat neure arimari, Arimá, badituc on handiac anhitz urthetacozat bilduac: reposa adi, ian eçac, edan eçac, eta atseguin har eçac. (Lk 12, 17-19)

Erhoá, gaurco gauean eure arimá edequiren çaic: eta dituán gauçac, noren içanen dirade? (Lk 12, 20)

Harc ilki eraciten du bere iguzquia gaichtoén eta onén gainera (Mt 05, 45)

Ceinec nahi baitu gende guciac salua ditecen (1 Tm 2, 04)

Çuen beccatuan hilen çarete (Jn 08, 21)

Baina çuen buruco bilo guciac-ere contactuac dirade (Lk 12, 07)

Iauna, eztuc haci ona erein eure landan? nondic du beraz hiraca? [...] Nahi duc bada goacen eta bil deça-

<p>gaixto hura, athera deçagun, vil deçagun? [...] Iguricaçue appurbat çaudete oraiño, luça eçaçue uztaraiño, utzquitçue haci biac, ona eta gaixtoa haztera, handitcera, eta çorhitcera (<i>Gero</i>, 119-120)</p>	<p>gun hura? [...] Vttzitzaçue biac elkarrequin handitzera uzta-arterano (Mt 13, 28-30)</p>
<p>Ha fede appurretacoa, fidantcia gutitacoa, cergatic dudatu duc? (<i>Gero</i>, 132)</p>	<p>O fede chipitacoá, cergatic dudatu duc? (Mt 14, 31)</p>
<p>Anhitz direla deituac, baiña gutiac hautatuac (<i>Gero</i>, 134)</p>	<p>Anhitz dirade deithuac, baina guti elegituac (Mt 20, 16 & 22, 14)</p>
<p>Egotz ceçala handic behera bere burua (<i>Gero</i>, 135)</p>	<p>Egotzac eure burua beherera (Mt 04, 06)</p>
<p>Dembora duguiño daguegun ongui (<i>Gero</i>, 154)</p>	<p>Bada dembora duguno, daguegun vngui guciey (Ga 06, 10)</p>
<p>Arraçoin da, travaillatcen den laborariac, berac lehenic bere fruituetic dasta deçan (<i>Gero</i>, 172)</p>	<p>Laborariac travaillatu behar dic fructuric recebi deçan baino lehen 2 (Tm 2, 06)</p>
<p>Beguirautçue lurra, eta itsasoa, gaizqui doha çuetçaz: ceren iautzi da Deabrua çuetara colera handian, iaquinic ecen, dembora guti duela. (<i>Gero</i>, 175)</p>	<p>Maledictione lurreco eta itsassoco habitantez: ecen iautsi da deabrua çuetara, hira handiz betheric, nola baitaqui ecen dembora appurbat baduela (Ap 12, 12)</p>
<p>Egunac berac du bere buruarequin eguitecoric asco (<i>Gero</i>, 183)</p>	<p>Egunac asco du bere afflictioneaz (Mt 06, 34)</p>
<p>Cenbatenaz eta iccusten baituçue ceuen azquen eguna hurbiltcenago çaitçuela, hanbatenaz lasterrago abia, hanbatenaz permago eta lehia-go çaitetze (<i>Gero</i>, 188)</p>	<p>[...] eta haur hambatenaz guehiago cembatenaz baitacussaçue hurbiltzen dela egun hura (Heb 10, 25)</p>
<p>Badaquigu parabisuraco denac, ez tuela behar beccaturic, eta ez beccaturen notharic, eta ez cimurduracic (<i>Gero</i>, 193)</p>	<p>Macularic ez cimurduracic gabe, ez halaco berce gauçaric (Ef 05, 27)</p>
<p>Eguiçue othoiz, eztadilla çuen ihes guertha neguan edo larumbatean, cein baitcen orduan besta (...) (<i>Gero</i>, 200)</p>	<p>Othoitz eguiçue bada çuen ihes eguitea eztén neguan, ezeta Sabbath egunean (Mt 24, 20)</p>

Çoazte hortic, etçaituztet eçagutcen
(*Gero*, 213)

Othe da nehor elhorri-arantceticaric
mahats, edo sappar-laharetaric fico
viltcen duenic? (*Gero*, 216)

Dohatsu dira misericordiosac, ceren
hec erdietsico dute misericordia
(*Gero*, 219)

Dohatsu dira misericordiosac.
Ceren hec erdietsico dute misericor-
dia (*Gero*, 223)

Neure onen erdiac emaiten derauz-
tet probey, eta baldin nehor engana-
tu badut, bihurtcen dut laur doble
[...] Eta baldin deus gaizqui eramai-
tera guerthatu baçait, hura ere
neure escuz [...] neurc bihurtcen
dut. (*Gero*, 247)

Erran beçate bertcec nahi dutena,
baiña nic diotsuet çuey, eztaguiçuela
neholatan ere iuramenturic (*Gero*,
252)

Guztien gaiñetic gomendatcen
deratçuet neure anaia maiteac, ezta-
guiçuen, batere iuramenduric, ez
ceruaz ez lurraz, eta ez bertcez: baiña
biz çuen hitzcuntça, solhasa, eta
mintçaiia: ez, ez, bai, bai. (*Gero*, 252)

Guiçonec, berac baiño handiagoaz
eguiten dute iuramentu, eta hequen
differentia guztien fina, eta acca-
batcea, iuramentua da (*Gero*, 253)

Eztuçu cer uccaturic, çu hetaric çara
Iesu Cristoren dicipuluetaric çara
cure mintçaiian eçagun çara (*Gero*,
260)

Eguiaz eguiaz erraiten deratçuet
(*Gero*, 269)

Eguiaz diotsuet, etzaituztet eçagu-
tzen (Mt 25, 12)

Ala biltzen duté elhorrietaric
mahatsic, edo karduetaric ficoric?
(Mt 07, 16)

Dohatsu dirade misericordiosoac:
ceren haey misericordia eguinen
baitzaye (Mt 05, 07)

Dohatsu dirade misericordiosoac:
ceren haey misericordia eguinen
baitzaye (Mt 05, 07)

Neure onén erdiac, Iauna, emaiten
diraizteat paubrey: eta baldin deus
nehori bidegabequi edequi badrau-
cat, rendatzen diat halaco laur. (Lk
19, 08)

Baina nic diotsuet ezteçaçuen iura
batre[...] (Mt 05, 34)

Bada gauça ororen aitzinetic, ene
anayeác, iura ezteçaçuela ez ceruaz,
ez lurraz, ez edocein berce iuramen-
duz: baina biz çuen baya, Bay: eta
çuen eza, (Ez St 5, 12)

Ecen guiçonéc berac baino handia-
goz iuraten duté, eta confirmatio-
netaco iuramendua, differentia
guciaren finetan eduqiten duté
(Heb 06, 16)

Eguiazqui hi-ere hetaric aiz: ecen
eure minçatzeac-ere declaratzen au
(Mt 26, 73)

Eguiaz eguiaz erraiten drauçuet (Jn
01, 51; 05, 19)

Eztadilla iguzquia eror çuen hasse- rretasunaren gaiñean (<i>Gero</i> , 271)	Iguzquia eztadila etzin çuen asserre- tassunaren gainean (Ef 04, 26)
Aita baldin posible bada, iragan bedi eneganic Caliça hori (<i>Gero</i> , 272)	Ene Aitá, baldin posible bada, ira- gan bedi eneganic copa haur (Mt 26, 39)
[...] deitcen cituela adimendu gabe- ac, eta sinhets gogorrac (<i>Gero</i> , 276)	Orduan harc erran ciecen, O adi- mendu gabeac (Lk 24, 25)
Demogula leccu, demogula amore hirari (<i>Gero</i> , 290-291)	Leku emoçue hirari (Erm 12, 19)
Eztuçu nahi neure, aitac eman derautan Caliça edan deçadan? (<i>Gero</i> , 303)	[...] ala eztut edanen Aitac niri eman drautan copa? (Jn 18, 11)
Etcenduen ene gaiñean escuric, eta ez bothereric içanen, baldin eman ezpalitçaitçu han goititic (<i>Gero</i> , 305)	Ezunque bothereric batre ene contra, baldin eman ezpalitzaic gainetic (Jn 19, 11)
Gorputz bat gara iesu Christo bait- han, eta bata bercearen miembro, eta parte. (<i>Gero</i> , 314-315)	Gorputzbat gara Christ baithan eta batbedera gara bata bercearen mem- bro (Erm 12, 05)
Etsaiac, etsaiac onhetsi behar ditutçue, gaizqui eguiten deratçueça- ney eguin behar deraueçcu ongui. (<i>Gero</i> , 322)	Onhets itzaçue çuen etsayac [...] ungui eguiçue gaitz daritzueneç (Mt 05, 44)
Onguiaz gaizquia garaitu behar da (<i>Gero</i> , 322)	Garait eçac vnguiaz gaizquia (Erm 12, 21)
Nahi duenac berra nahi duena baiña nic erraiten deratçuet çuey, onetz ditçatçuela ceuen etsaiac (<i>Gero</i> , 322)	Baina nic erraiten dauçuet, Onhets itzaçue çuen etsayac (Mt 05, 44)
Ceren Iaincoac berac errana da, ecen baldin barccatcen baderaucagu guc gueure etsaiari, barccatuco deracula harc ere guri, baiña ez ber- tcela (<i>Gero</i> , 334)	Ecen baldin barka badietzeçue guiçoney bere faltác, barkaturen drauçue çuey-ere çuen Aita ceruco- ac (Mt 06, 14-15)
Iauna barcca iatçagutçu gueure çorrac, guc guregana çordun dire- ney barccatcen derauztegun beçala. (<i>Gero</i> , 337)	Eta quitta ietzaguc gure çorrac, nola guc-ere çorduney quittatzen bai- trauegu (Mt 06, 12)

Emazteari, desideratceco, eta desira hartan atseguin hartceco contuan, behatcen dioenac, eguin duque ia bere gogoan, eta bihotzean beccatu (*Gero*, 369)

Cer fruitu, cer irabaci, eta placer ičan cenduten orduan, orai ahalque ere bururic ere ecin ailchatuz, çaudeten beccatu hetan (*Gero*, 383)

Etçaiztela hordi, etçaitezte arnoz betha (*Gero*, 408)

Hargatic erraiten çuen iondone Pauloc, etcebillala behin ere triste, triste beçala, bai, baiña bethi aleguera. (*Gero*, 440)

Baldin gueure concientciac accusatcen ezpagaitu, esperantça dugu eta fidantcia laincoa baithan (*Gero*, 450)

Eguiçue laster, atrapa deçaqueçuen beçala (*Gero*, 458-459)

Orhoit gaitecilla Loten emazteaz (*Gero*, 467)

Guibelat beha dagoela, golde nabarretan hari dena, ezta ceruco erresumaren erdiesteco gai, eta ez on (dio gure laincoac) (*Gero*, 467-468)

Hobe çuqueyen eguiazco bidea iaquin gabe egon, iaquinez guero guibelat bihurtu baiño (*Gero*, 469)

Badacusaçu sendatu çarela, beguira bada berriz eritcetic, cerbait, are lehen baiño gaizquiago guertha eztaquiçun. (*Gero*, 469)

Fineraino, eta finean perseveratcen duena, ičanen da salbatua, eta ongui çortheatua (*Gero*, 473)

Norc-ere beguiesten baitu emazteric, hura guthicia deçantçat, hambahatez adulteratu duqueela harequin bere bihotzean (Mt 05, 28)

Cer fructu cenduten bada orduan orain ahalque çaretan gauça hetaric? (Erm 06, 21)

Eta etzaiztela hordi mahatsarnoz (Ef 05, 18)

Triste beçala, baina bethi aleguera (2 Ko 06, 10)

Baldin gure bihotzac condemnatzen ezpagaitu, segurantza dugu laincoa baithan (1 Jn 3, 21)

Hala laster eguiçue non har baiteçaqueçue (1 Ko 09, 24)

Orhoit çaitetzte Lot-en emazteaz (Lk 17, 32)

Eta erran cieçón Iesusec, eztuc nehor bere escua goldean eçarten eta guibelerat behatzen duenic propio denic laincoaren resumacotzat (Lk 09, 62)

Ecen hobe vkan çuqueiten iustitiazco bidea ez lutén eçagutu, ecen ez eçaguturic hura, eman ičan çayen manamendu saindutic guibeleratzea (2 P 2, 21)

Huná, sendatu aiz: guehiago bekaturic eztaguiala, cerbait gaizquiago hel eztaquián (Jn 05, 14)

Baina norc-ere preseueraturen baitu finerano hura saluaturen da (Mt 10, 22)

Athea, athe hertsia da, eta bidea ere bide meharra, parabisurat dohana, eta gutiac dira, bide hura edireiten dutenac. (<i>Gero</i> , 474-475)	Ecen bortha herssia da eta bide herssia vicitzera eramaiten duena: eta guti dirade hura erideiten dutenac (Mt 07, 14)
Ceruco erresumari bortcha eguin behar çaica (<i>Gero</i> , 476)	Ceruetaco resumari bortcha eguiten çayo (Mt 11, 12)
Anhitz tribulamenduz, penaz, eta travailluz behar dela ceruco erresuman sarthu. (<i>Gero</i> , 478-479)	Erraiten çutela, anhitz tribulationez iaincoaren resumán sarthu behar garela (Eg 14, 22)
Athea, athe çabala, eta bidea ere bide handia eta espaciotsua da ifernurat dohana; eta anhitz ibiltcen da bide hartan, eta bai athean ere sartcen: bada han oin-hatza franco, eta ez compaiña escasic. (<i>Gero</i> , 479)	Ecen bortha largoa eta bide çabala da perdicionetara irioiten duena, eta anhitz dirade hartaric sartzen diradenac (Mt 07, 13)
Iaincoaren manamenduac eztira pisu eta ez gaitz (<i>Gero</i> , 482)	Iaincoaren [...] manamenduac gaitzac eztirade (1 Jn 5, 03)
Çatozte enegana travaillatcen çareten guztioç, eta cargaturic çaudetenoc, eta nic arinduco eta aise ibenico çaituztet. (<i>Gero</i> , 482-483)	Çatozte enegana fatigatuac eta cargatuac çareten guciác, eta nic pausu emanen drauçuet çuey (Mt 11, 28-30)
Iaincoac berac erraiten du, placent dela haren uztarria eta carga ere arin (<i>Gero</i> , 483)	Ecen ene uztarria aisit da, eta ene cargá arin (Mt 11, 30)
Ni bertce guztiaç baiño travaillatuaçgo naiz, ez ordea neror, ez, sed gratia Dei mecum. Iaincoaren garacia enequin. (<i>Gero</i> ; 494)	Hec guciac baino guehiago travaillatu içan naiz: badaric-ere ez ni, baina Iaincoaren gratia enequin dena (1 Ko 15, 10)
Ene uztarria leun, placent, eta aisit da, eta ene carga ere arin: ceren hala baita. (<i>Gero</i> , 498)	Ecen ene uztarria aisit da, eta ene cargá arin (Mt 11, 30)
Çatozte enegana travaillatcen çareten guztioç, eta cargaturic çaudetenoc, eta nic arinduco çaituztet: nic carga pisu hori edequiric, carga arinago bat emanen deratçuet. (<i>Gero</i> , 499-500)	Çatozte enegana fatigatuac eta cargatuac çareten guciác, eta nic pausu emanen drauçuet çuey (Mt 11, 28)
Iauna guc utci ditugu, ditugun on guztiaç, çure amoreacgatic, eta iarraiçui gatçaizquitçu, cer içanen	Huná, guc vtzi citiagu gauça guciac, eta iarreiçui gaitzaizquic hiri: cer içanen da beraz gure? (Mt 19, 27)

da bada gutçaz, edo guretçat? (*Gero*, 506)

Eguiaz erraiten deratçuet, seguraticen çaituztet, ecen norc ere utcico baitu enegatic, eta ene Evangelioagatic etcheric, anaiaric, arrebatic, aitaric edo amaric, errecibitucico duela orai presenteco dembora hunetan, utcico duenetic ehun guehiago, eta guero bertce munduan bicitce eternala. (*Gero*, 506-507)

Cer fruitu, cer irabaci, içan cenduten orduan, orai aipattcera ere, ahalque, çaretan beccatu hetan. (*Gero*, 515)

Halaber, nola hamar erreal dituen emazte batec hetaric bat galcen duenean, arguia iratchequiric, iraultcen baitu etche guztia: eta guero ediren duenean, alegueraticen baita, eta contatcen baiteraue bere hauçocoey bere sendagailla, eta erraiten eguin diatçotela bozcarioac; *Gero* 549-550

(...) beccatutan çauden bitartean: orduan etçara iaten duçun oguiaren ere merecient: ceren orduan beccatuaren cerbitçari, eta azpico baitçara (*Gero*, 567)

Ceren iaquin behar duçue ecen, haizcora, çuhaitzaren erroari, kheinatua dagocala, eta fruituric iasaiten eztuena, ebaqui içanen dela, eta sura egotcia. (*Gero*, 571)

Cer eguinen dugu bada? Cer içanen da gutçaz? (*Gero*, 572)

Ebaquico da eta sura egotcico da (*Gero*, 580)

Han içanen dela nigar, eta hortz carrasc-hots. (*Gero*, 585)

Eguiaz diotsuet, nehor ezta vtzi duenic etchea, edo anayec, edo arrebac, edo aita, edo ama, edo emaztea, edo haourrac, edo landac, ene eta Euangelioaren amorecatic. Recebi ezteçan demborá hunetan ehunetan hambac, etche eta anaye, eta arreba, eta ama, eta haour, eta landa, persecutionequin, eta secula ethortecoan vicitze eternala. (Mk 10, 29-30)

Cer fructu cenduten bada orduan orain ahalque çaretan gauça hetaric? (Erm 06, 21)

Edo cein emazte hamar drachma dituenec [...] eztu arguia vizten, eta etchea escobatzen, eta bilhatzen [...] Eta eriden duenean, deitzen ditu emazte adisquideac eta auçoac, dioela, Aleguera çaitetzte enequin: ecen eriden dut galdu nuen drachmá. (Lk 15, 08-10)

[...] bekatua eguiten duen gucia bekatuaren cerbitzari dela (Jn 08, 34)

[...] Bada ia aizcora-ere arborén errora eçarria da: beraz arbore fructu on eguiten eztuen gucia piccatzen da, eta sura egoizten. (Lk 03, 08-09)

Cer eguinen dugu beraz? (Lk 03, 10)

[...] piccatzen da eta sura egoizten (Mt 07, 19)

Han içanen da nigar eta hortz garrascots. (Mt 08, 12; 13, 42)

Biltçatçue belhar gaixtoac, eta biltçatçue multçuca, eta çamaca erratceco elccarrequin (*Gero*, 591)

On çuqueyen sorthu ezpaliz, edo sorthu, eta berehala hurtu, hondatu, eta ezdeus bihurtu baliz. (*Gero*, 593)

Egun hetan, orduan penetan daudenec, desiratuco dute bere egunen fina. eta accabantça, hil nahico dute; herioaren bilha ibilico dira, baiña alfferric, eztute edirenen. Ceren herioac hetaric ihes, eguinen du, (*Gero*, 593)

Aita Abraham [...] euçu bada nitçaz misericordia: eta egor iaçadaçu Lazaro, harc bere erhi puntaz, urean bustiric, mihian utqui naçan, appur bat heça naçan. (*Gero*, 597)

Dembora duguiño, daguigun ongui (*Gero*, 619)

Bilhatoço nauçue eta ez nauçue edirenen (*Gero*, 620)

Bil eçaçue lehenic hiracá, eta hers eçaçue açautoz erratzecotzat: (Mt 13, 30)

On çuqueen guiçon harc baldin sorthu ičan ezpaliz (Mt 26, 24)

Eta egun hetan guiçonéc herioa bilhaturen duté, eta eztuté eridenen: eta desiraturen duté hiltzera, eta herioac ihes eguinen du hetaric (Ap 09, 06)

Aita Abrahám, auc misericordia niçaz, eta igor eçac Lazaro, busta deçan bere erhi mocoa urean, eta refresca dieçadan mihia, ecen tormen-tatzen nauc gar hunetan (Lk 16, 24)

Bada dembora duguno, daguiegun vngui guciey (Ga 06, 10)

Bilhaturen nauçue eta ez eridenen (Jn 07, 34)

¹ B. Urgell, "Axular eta Larramendi", ASJU 1991, 913-914.

LABURPENA

Artikulu honetan Axularek *Gero* liburua idazteko erabili bide zituen autore bi identifikatzeko saio bat aurkezten da. Horrela, Materrereren *Doctrina Christianako* pasarte zenbaitekin Axularrek erakusten dituen testu kidedasunetan oinarrituz, urdazubiarrak batik bat bere obraren hasierako gomendiozko gutun eta hitzaurre modukorako erabili zuela ondorioztatzen da. Baina frantziskotarraren erabilera logikotasunaren eta espero zitekeenaren esparrukoa bazen ere (Axular haren aztertzaile eta examinatzailea izan baitzen), harri-gariago dirudi lehen begiradan Leizarraga kalbinistaren presentziak apaiz katoliko kontrarreformista baten obran. Guztiarekin ere, Axularrek *Testamentu Berritik* hartzen dituen aipamen askok Leizarragaren euskal bertsioren eragina uzten dute agerian. Testuon zerrenda bar eransten da.

RESUMEN

El presente artículo identifica a dos autores del ámbito de la escritura vasca cuyas obras fueron utilizadas (aunque silenciadas) en la elaboración del libro *Gero* de Axular. Basándose en las semejanzas formales que ciertos pasajes de la obra de Axular tienen con otros de la *Doctrina Christiana* de Materre (no en vano fue Axular censor de la misma), se concluye que ésta estuvo en manos de Axular, especialmente en el doble prólogo de su libro. Y aunque el empleo de un referente calvinista en una obra perteneciente al contrarreformismo militante católico no entre en el campo de lo previsible, queda patente asimismo que muchas de las citas novotestamentarias de Axular son producto de la versión vasca de Leizarraga. Se presenta un listado comparativo de los textos en cuestión.

RÉSUMÉ

L'article ci-présent identifie deux auteurs du domaine de l'écriture basque dont les œuvres furent utilisées (bien que passées sous silence) dans l'élaboration du livre *Gero* d'Axular. En se basant sur les similitudes formelles que certains passages de l'œuvre d'Axular ont avec d'autres de la *Doctrina Christiana* de Materre (Axular n'en fut pas en vain le censeur), on en conclut que cette œuvre arriva dans les mains d'Axular, spécialement dans le double prologue de son livre. Et même si l'emploi d'un référent calviniste dans une œuvre appartenant au contre réformiste militant catholique n'entre pas dans le domaine du prévisible, il est aussi évident que beaucoup des citations néotestamentaires d'Axular sont le produit de la version basque de Leizarraga. Une liste comparative des textes en question est présentée.

ABSTRACT

The present article identifies two Basque-language authors whose works were used (albeit covertly) in the writing of Axular's *Gero*. Basing the theory on stylistic similarities that some of the passages from Axular's work share with those of Materre's *Doctrina Christiana* (not in vain was Axular censor of the work), the conclusion is arrived at that the *Doctrina* found its way into Axular's hands, above all in his book's double prologue. And although the use of a Calvinist reference in a militant Catholic anti-reformist work sounds far from likely, it is left patent that a great many of Axular's new testament quotations are the fruit of Leizarraga's Basque version. A comparative list of the texts in question is offered.